



# Olabarrietxebarria (-a) etxebizitza

Aldacarak:

Ahozkoa:



43° 10' 33"

2° 36' 2"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*“... la casería rústica titulada Olabarrico Echevarria... situada en la barriada de Eitua de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con inclusión de su antusano cuarenta y tres estados, o sean ciento sesenta y tres metros cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de piso llano con zaguan cocina aposento y cuadras, de piso principal con sala, tres cuartos y pajar, siendo su construcción de paredes de mampostería por las cuatro fachadas...”*

*DJE 2/20 or. (1886)*

Abadiñorekin mugan dagoen baserri honen gaineko lehen aipamena 1859ko udal-izendegian aurkitzen dugu. Bertan, *Olabarrias* aipatzen da, eta horrek esan nahi du *Olavaria* (**Ikus Olabarria**) eta *Olabarrietxebarria* dagoeneko existitzen zirela. 1905ean *Olabarri nueva* (BUA, 40. or.) agertzen da, eta handik gutxira, *Olavarrico Echevarria* (1910, BUA, RU). Udalak eginiko azken erroldan, *Olabarriechevarri* (1967, BUA, CE) moduan jaso zen.

XIX. mendearen erdialdeko baserri etxe tipikoa dugu; egiturak goranzko tendentzia dauka, zabalean hedatu beharrean. Bi isurkiko

teilatua azpian, hiru ardatzetan eta hiru solairutan antolatutako fatxada dauka, erdikoa izanik nabarmenena. Horrela, atearen gainean leiho luzea egin zioten, eta ganbaran, balkoia zabaldu. Azkeneko berrikuntzan hormigoizko zorua jarri zioten. Aldamenetako ardatzetan, leihoak handitu zituzten; ganbarakoak, berri, txikiagoak dira, teilatua formari egokitzeko. Harlangaitzaz eraikitako baserria da, baina oso kalitate oneko harlandua erabili zuten kantal guztietan eta bao denen ertzetan. Jatorrian, hormak luzituta eta zurituta zituen, baina 90eko hamarkadako berrikuntzan harlangaitza desestali zuten.

## toponimia

Azken mendeotan ola hitza erabili izan da erreka ondoan burdina sortzeko edo lantzeko egoten ziren eraikuntza bereziei, burdinola izenaz ere ezagutuak, baina adiera zabalagoa izan du hitz honek denboran zehar. Garai batean ola edo kortabaso herri basoetan egiten ziren belardi biribilei esaten zitzairen. Baina esanahi arruntena hasieran aipatutakoa da. Kasu honetan barria egoteak zaharra bazela adierazten digu.



*Ereñaga alde / Berriz Iruditan*